

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

6589

AGINDUA, 2008ko azaroaren 14koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren 2008-2009 urterako enplegu publikoaren eskaintza onartzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko Legea aldatzeko den azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkera berriak hala ezarri duelako, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23.1 artikuluan honako hau dugu ezarrita: «Administracio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira».

Aipatutako artikulua betez, Agindu honen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikoaren eskaintza onartzten da. Eskaintza honetan sartzen dira hutsik dauden plazak, betiere horiek betetzea atzeraezina jotzen bada plaza horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen funtzionamendua egokia izan dadin.

Eskainitako plaza guztien artean sartuta daude bai karrerako funtzionarioenak direlarik txanda irekiaz bete behar diren plaza hutsak baita langile ezinduek bete beharrekoak ere.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.e) artikuluaren arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren egitura eta egitekoak ezartzeko den otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuaren 2. artikuluarekin bat etorriz, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko titularraren proposamenez honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren enplegu publikoaren eskaintza 2008-2009 urterako onartzea Agindu honetan adierazten diren baldintzetan, eta hori guztia Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko bigarren idazpuruaren hirugarren kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko ezkeroz kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeko hirugarren tituluaren hirugarren kapituluan ezarritakoari jarraituz.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

6589

ORDEN de 14 de noviembre de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se aprueba la oferta de empleo público de la Administración Educativa de la Comunidad Autónoma Vasca para el año 2008-2009.

El artículo 23.1 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca en su redacción dada por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre, de modificación de la misma establece que «las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes en cada Administración Pública serán objeto de oferta de empleo público».

En cumplimiento del citado precepto mediante la presente Orden se aprueba la oferta de empleo público de la Administración Educativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la que se comprenden las vacantes existentes, cuya provisión se considera inaplacable para el buen funcionamiento de los servicios públicos a los cuales están adscritas.

El total de plazas ofertadas incluye tanto las vacantes de funcionarios de carrera que hayan de proveerse mediante turno libre, como las que se reservan para su cobertura por personal discapacitado.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.1.e) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y del artículo 2 del Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública y a propuesta de la titular del Departamento de Educación, Universidades e Investigación,

RESUELVO:

Artículo 1.— Aprobar la oferta de empleo público de la Administración Educativa de la Comunidad Autónoma Vasca para el año 2008-2009 en los términos que se establecen en la presente Orden, todo ello de conformidad con lo prevenido en el Capítulo Tercero del Título Segundo de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y del Capítulo Tercero del Título Tercero de la Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la CAPV.

2. artikulua.— 2008-2009 urterako emplegu publikoaren eskaintzak bere baitan gordetzen ditu agindu honen eranskinean zerrendaturik datozen plaza huts guztiak.

3. artikulua.— Dagokion deialdian ezarriko dira es-kainitako plazetan sartzeko prozedura eta eskakizunak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta beraren aurka interesdunek aukerako berrazterzko errekursoa aurkeztu ahal izango diote Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-errekursoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio-arekiko Auzitarako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 14a.
Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren ki-degoa

1.051

Artículo 2.— La oferta de empleo público para el año 2008-2009 incluye el total de vacantes que se relacionan en el anexo de la presente Orden.

Artículo 3.— La correspondiente convocatoria concretará el procedimiento y los requisitos para el acceso a las plazas ofertadas.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Hacienda y Administración Pública, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.— La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de noviembre de 2008.
La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

ANEXO

Cuerpo de Maestros/as de la Comunidad Autónoma del País Vasco

1.051